

Egile eskubideen aldeko aldarria idazleen aldetik

Liburuaren Legeari zuzenketak aurkezteko epea zabalik dago oraindik. Aukera hau aztertzen ari da Euskal Idazleen Elkarte (EIE). Galiza eta Kataluniako elkarteekin biltzeko asmoa ere badute ekimen bateratu bat adosteko modua ikusteko, izan ere, liburuaren lege berriarekin espainiar Estatuko tokiko hizkuntza txikiek ez dugu inolako babesik, Fito Rodriguez EIEko lehendakariaren arabera.

Bestetik, ez da inon jasotzen -dio- liburutegietan maileguarengatik kanon bat ordaintzeko aukera. Egile eskubideen inguruan anbiguotasuna ikusten du, alegia, titularrak ez dauka baimenik musutruk eman beharrik baina momentuz ez dago modu esplizituan horrelakorik xedatzen duen legerik. Rodriguezen aburuz, egile eskubideen aurrean ikuspegi diru biltzailea dute agintariek eta, horrela, edozein DVD, CD edo liburu erostean norbanakoak ordaindu behar izaten du beti. Aldiz, erantzunkizuna botere publikoena denean, gainetik kentzen dute beraiei beharko lekioken sama.

Liburutegien kasuan, ez dute mailegutzairen araberako inolako kanonik ordaindu nahi eta berriro norbanakoak ordaindu behar izaten du kultura. Rodriguezek Eslovakiako adibidea dakar gogora. Hango idazleentzat funtsezkoa da liburutegi publikoen bidez ematen zaien kanona. Bide horretatik diru dexente etortzen zaie idazten jarraitu ahal izateko. Hala, liburutegi publikoa promozionatu egiten da eta botere publikoek erantzunkizuna dute kulturaren promozioan.